



TXOTX EGITEKO DENBORALDIAREN HASIERA ARABAN

Egilea [Hirinet](#) 2014ko urtarrilak 14, Asteartea



Urtearen hasierarekin batera, gurean da berriz ere sagardo denboraldia, izan ere, urtarrilaren 16an, ostegunean, Arabako Sagardo Berriaren Eguna 2014 ospatuko dute Arabako sagardogileek Trebiñu sagardotegian.

Arabako Bertsozale elkarteak izango da aurtengo gonbidatu berezia eta elkarteak kideek zabalduko dituzte kupelak. Felipe Zelaieta, Asier Otamendi eta Juan Mari Juaristi bertsolariak arituko dira bertsotan eta horiekin batera, txalaparta eta trikitixa doinuek alaituko dute jaia. Aurtengo uztari dagokionean, Juanjo Peciña Arabako Sagar eta sagardogileen elkarteak kidea eta Aramaioko Iturrieta Sagardotegiko arduradunaren hitzetan, "aurten loraldian lore asko egon zen baina tamalez, izotza eta euria egin zuenez, lora asko galdu ziren eta sagarrak

txikiagoak izan dira, hortaz, kilo gutxiago jaso ditugu". Hori dela eta, bestelako lekuetatik ekarri behar izan dituzte sagar batzuk, Arabatik eta Bizkaitik, esaterako.

Guztira, Araban, Trebiñu eta Aramaioko Iturrieta sagardotegien artean, 40.000 litro inguru ekoiztu dituzte aurten, [iaz lortu zen kopuru bera](#), hain zuzen. "Gure sagardoaren ezaugarri nabarmenena Arabako sagarrekin egiten dela da. Sagarra jasotzen denetik, bi edo hiru egun pasatzean eramaten dugu prentsara. Modu honetan, sagarra bere puntuan sartzen da. Ekoizle txikiak gara, eta hortaz, gure produktua hobeto zaintzeko aukera dugula uste dugu", azaldu du Peciña.



ASSE elkarteak Araban frutikultura bultzatzeko sortu zuten orain dela bost urte inguru lurraldeko frutikultor eta sagardo ekoizleek. ASSE frutikultura eta bertatik eratorritako (sagardo, zuku, marmelada, jelea, ...) produktuen tratamenduan interesa duen elkarteak da eta bere xede nagusia Araban frutikulturaren garapena eta produktuaren eraldaketa sustatzea da. Horrez gain, informazioa eta formazioa ematea du helburu, adibidez, inausketa, izurri eta gaitz-kontrola, txertatze eta abarri buruzko hitzaldi eta ikastaroak antolatuz. Bestetik, fruta-arbola landatze berrien ezarpena bideratzeko laguntza eskaintzen du elkarteak, lurraldeari hobeto egokituriko mota onenak berreskuratu eta garatzeko lehentasunez. Horrez gain, laborantza eta jardute berriak ikertzen ditu. Azkenik, frutikulture, sagardogile eta gainontzeko ekoizleen interesak ordezkatu, sustatu eta defendatzea aurkitzen ASSEren zereginen artean, baita instituzioekin elkarlanean, elkartearen helburuen defentsa ahalik eta gehien garatzeko, eta Euskal Herriko antzeko elkarteekin elkarlanean aritzea ere.

Arabako Sagardo Berriaren Eguna 2014

Noiz? Urtarrilaren 16an, ostegunean, 20.00etan

Non? Trebiñuko Askartza herriko TREBIÑU sagardotegian

Gonbidatu berezia: Arabako Bertsozale elkarteak

8+1 0

Cambiar

Tweet 2

Baloratu ar

(0 boto)

Sail honetan gehiago [« Idatzizko egunkariaren hedapena Araban \(eta Hego Euskal Herrian\): gero eta egunkari gutxiago erosten dira](#)

GIZARTEAN GEHIAGO

TXOTX EGITEKO DENBORALDIAREN HASIERA ARABAN

Izan lehena iruzkina idazten! | Gehiago irakurri...

IDATZIZKO EGUNKARIEN HEDAPENA ARABAN (ETA HEGO EUSKAL HERRIAN): GERO ETA EGUNKARI GUTXIAGO EROSTEN DIRA

Izan lehena iruzkina idazten! | Gehiago irakurri...

AMIAMOKOAK GASTEIZEN

Izan lehena iruzkina idazten! | Gehiago irakurri...

TRANVIT, GASTEIZKO GARRAIO PUBLIKOAN BIDAIAZKO APLIKAZIOA

Izan lehena iruzkina idazten! | Gehiago irakurri...

AMETS MARTINEZ, TANTAZ TANTA: 'EUSKAL PRESOEN GIZA ESKUBIDEAK ERRESPEATATZEA ESKATZEN DUGU, GIZATASUNEZKOA ETA GATAZKAREN KONPONBIDEAN EZINBESTEKOAK DELAKO'

Izan lehena iruzkina idazten! | Gehiago irakurri...

Izen-abizenak:

Posta: *

☒ Hirinet

☒ Euskararen Agenda

Harpidetu